



**MARKINA-XEMEINGo UDALA
(BIZKAIA)**

Markina-Xemeinen, 2014ko apirilaren 9an,

PRENTSA OHARRA

Auzokonposten lehen emaitzak onak izan direla baieztatu dute teknikariak

Sporako ingurumen zerbitzuetako teknikariak auzokonposta guneeetan egon dira, eta erabiltzaileak ondo dihardutela baieztatu dute, auzokonpostek martxa ona daramatela. Beste alde batetik, orain arte haragia eta arraina ez botatzeko esanda zegoen arren, hemendik aurrera bai bota daiteke, gune bietan. Hori bai, aurreko asteetan egindako oharra gogoratu behar da: ezin da plastikorik bota, nahiz eta biodegragarriak edo konpostagarriak izan.

Ikastarora lehen joan ez zirenei eta azken asteotan izena eman dutenei beste ikastaro batera deituko zaie Aste Santuen ostean. Beti esan den moduan izen-ematea irekita dago, eta ahalegina egingo da denei tokia aurkitzeko.